

Jose Luis Alvarez
Enparantza
Txillardegi

*Gizon polifazetikoa
eta intelektual osoa*

(1929-2012)

BIDeGILEAK

Egilea:

Jose Luis Ormaetxea Lasaga Txipi



JOSE LUIS ÁLVAREZ ENPARANTZA

(1929-2012)

Bizitzako lehen urteak Antiguán

Jose Luis Alvarez Enparantza Donostiako Antigua auzoan jaio zen 1929ko irailaren 27an, New Yorkeko Burtsak erreka jo baino egun batzuk lehenago. Jose Luis jaiotako urte horretan beste hauek ere sortu ziren: Martin Luther King, Audrey Hepburn, Milan Kundera edo Yasser Arafat; eta, etxera etorrita, urte horretakoak dira Carmelo Bernaola konpositorea edo Alfonso Irigoien filologoa. Thomas Mann idazle handiak urte berean lortu zuen Literatura Nobel saria.

Alvarez deitura Madrildik datorkio, Jose Luisen birraitona (Francisco Álvarez González) handik iritsi baitzen Tolosara Bigarren Karlistaldia baino lehen. Federico Álvarez aitona ere Tolosan bizi izan



Ama semeekin, Donostiako Alderdi Ederren (Jose Luisek 4 urte inguru zituen)

Jose Luis eta anaia
Juan Mari gurasoekin



zen, baina emaztea (amona Bittori Iraola tolosarra) gazterik hil zitzaionez, Tolosako munduarekin hautsi eta Donostiara, Antigua auzora etorri zen. Aitonak etxea («Casa Victoria») eraiki eta litografia-lantegia ipini zuen Antiguan. Euren bizilekutik gertu, 50 metro ingurura, «Txillardegi» etxea zegoen, gerora Jose Luisek erabili zituen ezizen ugarien artean (*Usako, Goibenetxe, Igarra, Larresoro, Harribizketa...*) nagusitu zena.

Amaren, Maria Enparantzaren aldeko familiak Oñatiko jatorria zuen. Beraz, Jose Luisen ama euskalduna zen, eta euskaraz egiten zuen, baina soilik neskamearekin eta esnezalearekin. Amak pianoa jotzen zuen, eta Jose Luis pianoa ikastera bultzatu zuen.

Txikitan, gerraurrean, urte batzuetan amonarekin bizi izan ziren San Martin kalean, etxeko lantegiak porrot egin eta aita Kubara joan baitzen lan egitera. Baina gerra sortu zenean, berriro Antiguan ziren bizitzen. Jose Luisek anaia bakarra

izan zuen, Juan Mari, bera baino lau urte gazteagoa.

Euskara etxean ez zuen apenas entzun, baina inguruan bazuen presentzia: lehen-gusuek euskaraz bazekiten; Aieteko mutiko batzuek ez zekiten erdaraz; ama inguruko baserritar batekin euskaraz ari eta Jose Luisek ulertu ez; Igaran, baserritar batek errietan euskaraz sagar-lapurretan ari ziren gaztetxoei...

Jose Luisek, euskaraz jakin ez arren, euskararekiko jarrera berezia izan zuen umea zenetik: «Euskal mundua ez nuen batere ezagutzen, baina neurea zela sentitzen nuen eta neure mundutzat hartzen».

Gerra sortu zelarik, Jose Luisek sei urte baino ez zituen, eta egoera hark ez zuen



Bi anaiak aitarekin



Bi anaiak txakurrarekin

dramatizmorik berarentzat. Gerrak ez zuen bereziki kolpatu Donostia, eta, nahiz eta osaba batek alde egin, aitik Donostian geratzea erabaki zuen.

Ikasten Lourdes eskola mistora joaten hasi zen, eta gero zortzi urterekin Aldapetako Marianistetara. Ikastetxe frankista zen, eta erlijiosoak espainol hutsak. Berak aitortu izan duenez, ez zen ikasle-eredua inoiz izan.

Gaztetan, lagun-taldea edo kuadrilla izatea gauza handia da. Jose Luisek ere eduki zuen berea: Antiguako zenbait mutil, lehengusuak batez ere. Baina Jose Luis

berezia zen: lagunak zer egin erabakitzeko elkartzen zirenean, denbora galtzerik ez zuen nahi izaten eta denak utzi eta etxera joaten zen pianoa jotzera. Zer egin erabakitzen zutenean, deitzen zioten eta orduan biltzen zitzaien. Ohitura zuten larunbat eta igandeetan zinera edo neskatara joateko. Gerora, eta batez ere atzerrian egondako urteengatik, gazte-garaiko lagun batzuk galdu egin zituen, baina lehengusuekin jarraitu zuen. Bestela, Jose Luisek egin dituen harremanak politikak markatu ditu edo, Hegoaldera 1977an itzuli zenetik, unibertsitateak. Berak aitortua da zaila gertatu zaiola adiskide min egitea abertzale eta euskaldun ez den batekin.



Politika eta konpromisoa

Jone eta Jose Luis

Gerraoste ilunean, beldurra eta ikara zen nagusi. Baina denak ez zeuden lo. Jose Luisen lehen ekintza erreferendumaren aurkako PNVren paper batzuk banatzea izan zen. 1947a zen. Garai hartan hasi zen ingeniari-tza ikasten Bilbon, eta esan daiteke orduan ekin ziola Txillardegik ibilbide politikoari. Alde batetik, euskara ikastearena serio hartu zuen, batez ere 1948tik aurrera. Aurretik, 1947an, gaixoaldi bat izan zuen, eta ohean egon zen asteetan amaren laguntzarekin gramatikatxo bat osatu eta euskara ikasten hasi zen. Gero, Iñaki Zubimendi eta Iñaki Zumeta izan zituen irakasle, eta, jakina, orduko materialarekin aritu zen (Zabalaren gramatika, etab.). Euskara ikasteko erabakia eta konpromisoa 1949-1950 ikasturtean sendoa bilakatu

zen: gaueko 12:00etatik 3:00ak arte jarduten zuen horretan. Garai hartan ezagutu zuen Jone (Forcada), eta ezagutza erdaraz egin bazuten ere, gerora harekin euskaraz egiten zuen. Baita beste lagun batzuekin ere.

Bestalde, Bilbora iritsi eta laster jarri zen harremanetan abertzale-jendearekin. Baina Bilboko abertzale-giroa, Donostiakoa bezala, oso urria zen. Zer edo zer mugitzen zirenek Euzko Gaztediaren eraginpean ziharduten.

1950eko uztailean, sarekada gogor batean –PNVren inguruko hogeita hamar bat lagun erori ziren– Txillardegi atxilotu eta Martuteneko kartzela berrira eraman zuten. Hilabete eman zuen barruan.

Ez zen hori atxilotu zuten aldi bakarra izan: 1960ko abuztuan bigarrenez «erori» zen Txillardegi. Antiguako etxe ondoko Guardia Zibilaren komandantzia galdekatu zuten hiru gau eta hiru egunez, baina ez zuten ukitu. Gero, ezer aitortu gabe Martutenera eraman zuten eta hiru hilabetez egon zen preso. Sarekadan berrogei bat lagun jausi ziren, asko Euzko Gaztedikoak.

EKIN

1951-1952 ikasturtean, ezkutuko talde politiko bat sortzea erabaki zuten hainbat lagunek, eta, hala, 1952ko udazkenean eratu zen Ekin (berez izena haiek argitaratzen zuten buletin batetik zetorren). Txillardegiz gainera, hor ziren Jose Maria Benito del Valle, Jose Manuel Agirre, Julen Madariaga, Iñaki Gaintzarain, Alfonso Irigoien, Rafael Albisu, Iñaki Larramendi, etab. Hasierako urteak prestakuntzakoak izan ziren: asko irakurri eta asko ikasi zuten, batez ere euskal historiaz, euskal foruez, existentzialismoaz. Aldi berean, Bizkaian eta Gipuzkoan talde irekiak eratu zituzten, eta hamaika hitzaldi eman. Ekin-en sorrera ekarpen politiko garrantzitsua izan zen: «Zerbait inportantea egiten ari ginen sentazioa genuen, eta hori oso gutxitan sentitu ohi da bizitzan».



Ordura arte PNVko Erresistentziak dinamikatxo bat (pintadak, ikurrinak mendi-etan...) izan zuen arren, jada nahiko ahulduta zegoen, eta orduan sortu zen Ekin, helburu nagusitzat batasun nazionala harturik.

Urte horietan Ekin-ekoek harremana zuten Euzko Gaztedikoekin, eta 1957an azken hauek bi taldeak bat egitea proposatu zieten. Baina PNVko buruek ez zituzten ongi ikusten hurbilketa horiek, infiltrazio komunistaren beldur baitziren. 1958an, harremanak nabarmen okertu ziren.

ETA

Hala, 1958ko amaieran bilera bat egin zen Benito del Valleren etxean, eta han erakunde berri bat sortzea erabaki zuten. ETAREN jaiotza dela eta, maizenik 1959ko uztailaren 31 aipatu izan da; izan ere, data hartan bidali zuten gutuna Jaurlaritzara erakunde berriaren sorrera adieraziz. Txillardegik idatzi zuen eskutitz hura. Izena ere Jose Luisek proposatu zuen: ETA (Euskadi Ta Askatasuna). Hasieran bi talde ziren: Bilbokoa eta Donostiakoa.

Ekin-eko kide batzuk katolikoak baziren ere, eta hasieran bortxarik gabeko bo-

rrokaren aldekoak (gandhizaleak), pixkanaka borroka gogorraren alde jarri ziren (hurbileko adibideek bultzaturik: Aljeria, Tunisia, Irlanda...).

ETAk bost adar zituen, baina laster irentsi zuen 6. adarrak, «Ekintza Adarrak». Jose Luis adar «politikoan» geratu zen, eta ezer gutxi zekien Ekintza Adarraz.

Lehen ekintza Francoren aldeko gudulari ohiak zihoazen trenaren deskarrilatzea izan zen, Donostian. Saio horren ostean, errepresio gogorra etorri zen.

Orduan (1962-1963) sortu zen ETAN «buruzagi»aren figura, aginte osodun militantea. Lehena Madariaga izan zen, eta barrura itzuli zen berriro azpiegitura eraikitza. Ondorengoak Arregi eta Uribe izan ziren. Eta hola V. Asanbladara arte, non berriro osatu zen ETAREN organigrama.

1962an egin zen ETAREN I. Biltzar Nagusia, Beloken. Zatiketa nabaria zen. 40 bat lagun. Bi talde etsai: Ekin-eko sortzaile izandakoak, Benito del Valle eta Agirre-
ren inguruan, eta aurkako taldean Iturrioz eta Lopez Dorronsoro. Txillardegik nolabait bilerako erdigune izan zen.

Txillardegi eta lagunak oso banatuta zeudenez, «felipeak» («felipe» = *Frente de Liberación Popular* (FLP), estatuan; Euskal Herrian, *Euskal Sozialisten Bata-suna* (ESBA)) nagusitu ziren ETAko aparatuaz. Garai hartan (1965eko azarotik 1966ko martxora bitartean), Txillardegik lau txosten bidali zituen barrura, eta beste bat gehiago V. Biltzar Nagusira. Txosten horien helburu nagusia ETAko zuzendaritza berriaren tesiak agerian jartzea izan zen (zapalketaren izaera nazionalaren ukazioa). Txillardegik borroka nazionala (hots, Fronte Nazionala) proposatzen zuen lehen fase baterako, gerorako utziz iraultza soziala. Baina txosten horiek ez ziren zabaldu erakundearen.

1967ko apirilean, ETAREN zuzendaritzak marxismo-leninismoa onartu zuen ideologiatzat. Orduan atera ziren ETAtik Txillardegi, Xabier Imaz eta Jose Maria Benito del Valle. ETAko militante gehienek traidoretzat hartu zituzten, eta Jose Luis aitortu izan du bere bizitzako mentortik txarrena izan zela hori.

IRAKURLE AMORRATUA

Jose Luis bizitza osoan izan zen irakurle handia. Gorago aipatu dugu Ekin-en so-





Madariaga, Irigarai, Txillardegi eta Benito del Valle

rrean nola hasi ziren euskal historia ikasten, A. Campion, H. Oloriz, F. Sagarmingana... irakurriz.

Baina euskal gaiak ez ziren bakarrak. Lehen eragile nagusietakoa Bertrand Russell filosofo eta matematikaria izan zuen. Ondoren, M. Unamuno, S. Kierkegaard, M. Heidegger, J. P. Sartre, A. Camus, G. Marcel... etorri ziren. Txillardegi eta lagunek Sartre zuten ispilu, haiek ere intelektual konprometituak izan nahi baitzuten.

Beste eragin handi bat Edgar Morin-engandik jaso zuen, marxismoaren eta materialismo historikoaren kritiko zorrotza

Sei eleberri idatzi zituen: hemen lehen hirurak





bera. Budismoa ere ezagutu zuen, eta baita gandhismoa ere.

EUSKAL IDAZLE AITZINDARI

Gorago politika-kontuak aipatu ditugu, baina ezin dugu ahaztu Txillardegiren motor nagusia hizkuntza izan zela, euskara. Esango nuke euskara dela bere lan, borroka eta jarduera guztien gunea. Gazte-gaztetatik oso garbi izan zuen euskararik gabe ez zegoela Euskal Herririk eta ipar horri jarraiki zitzaion bizitza osoan. Berak esana da hizkuntzarekiko kezka aberriarekikoa baino lehenago izan zuela. Eta hori abertzaleek euskarari oso garrantzi txikia ematen zioten garaian.

Euskara ikasi orduko, idazten hasi zen. Hasierako lanetan («Unamuno eragille», «Betikoaz agian», «Donostia eta Antigua 1829'ean»...) nabarmenak dira Txillardegiren kezka filosofikoak eta historikoak. Baina aipagarriena bere lehen eleberria da, *Leturiaren egunkari ezkutua* (1957), euskal literaturaren lehen eleberri modernoa. Txillardegik zortzi astean idatzi zuen eleberria, Galizian soldadutzan zela. Nabaria da autore existenzialisten eragina: Unamuno, Kierkegaard, Sartre... Liburuan kezka metafisikoak islatzen ditu, eta



Azken hiru eleberriak

hori guztiz berria zen euskal narratiban. Aukeratu beharrak sortzen duen ezin-egon eta larridura existentziala da liburuaren gai nagusia. Euskal eleberriaren lehen heroi problematiko edo gatazkatsua da Leturia. Existenzialismoaren gai nagusiak agertzen dira: bakardadea, hautatu beharra, heriotza, Jainkoaren izana...

Hurrengo nobela ere, *Peru Leartzako* (1960), ildo beretik joan zen. Hemen ere kezka existentzialista zen nagusi: bihotzaren ikara, arimaren larrimina...

Ukaezina da Txillardegiren nobelagintzak euskal letretara ekarri zuen modernotasuna, baina kritika gogorrak jasan zituen, batez ere *Peru Leartzako*-k: mamiari eta erabilitako euskarari zegokionez (Orixe), edo alde formaletik eta literario-tik zituen akatsak eta gabeziak azaleratuz (I. Sarasola).



Erbestea (1961-1977)

Jose Luis eta Jone lau seme-alabekin

Txillardegik Iparraldera egin zuen alde 1961eko Urtats egunean, ETA erakundearen erabakiz. Aurretik hitzartu bezala, Piarres Xarriton joan zitzaion bila Dantxarineko mugaraino. Hasieran laguntza ederra eman zion Xarritonek, Hazparnen babeslekua eskainiz eta lana bilatzen ere lagunduz. Miarritzen ingeniari-lanetan aritu ondoren, Parisera joan zen, eta han bakarrik bizi izan zen bost hilabetez, Jone emaztea eta hiru seme-alaba (Jon, Joseba eta Maddi) Donostian utzita. Jose Luis eta Jone urte batzuk lehenago, 1957ko uztailean, ezkonduak ziren Donostian.

Geroago, emaztea eta hiru seme-alabak joan zitzaizkion, eta Paris ondoko herrixka batean hasi ziren bizitzen. Handik urtebetera, 1962ko maiatzean, Mikel jaio

zen. Eta kontu bitxia: bazekiten Saint-Germain-des-Prés auzoko elizan bazela beretter zuberotar bat, eta haren bidez apaiz euskaldun bat lortu eta euskaraz baitaiatu zuten Mikel.



Monzonek eta Txillardegik sei hilabete eman zituzten 1971n deserrian, Salles-d'Armagnac-en

Txillardegiren atzerrialdian deigarria gertatzen den gauzetariko bat da erbestean izan zen 16 urteetan 30 etxe ingurutan bizi izan zela. Eta horrek erakusten digu erbesteko urte horietan zer sosegu gutxiko bizimodua egin behar izan zuen.


1964an, Estatu frantsesak hainbat kide (Txillardegi, Julen Madariaga, Jose Maria Benito del Valle eta Eneko Irigarai) kanporatu egin zituen. Jose Luis Antwerpenera joan zen lehendabizi, eta handik lasterrera Brusela-ra. Han ETAko buruzagitza uztea erabaki zuen.

1969aren bukaeran, Jose Luisek kanporatze-agindua zuen arren, Estatu frantse-sera etortzeko baimena lortu zuen Xarritonen bidez, honek bitartekotza egin baitzuen Hazparneko jatorria zuen Madré jeneralaren aurrean. 1971n Jone Seaskan ari zen lanean.

1971n berriro deserrira: Monzonek eta berak sei hilabete eman zituzten lehenbizi Salles-d'Armagnac-en eta gero Nogaro-n, Gers departamenduan. Ondoren, Hendaian bizi izan zen 5 urtez. Azkenean, 1977an, hegoaldera itzuli zen.

FRONTE ABERTZALEA

1961ean, Parisko Jaurlaritzaren ordezkartzan, ETAren izenean Fronte Abertzalea osatzeko proposamena egin zuenetik, Txillardegiren pentsamoldean beti egon da presente abertzaleen arteko Fronte baten beharra. 1971n, Monzonekin batera Nogaron erbesteratua zela, eta Monzon beraren enkarguz, *Proyecto de manifiesto vasco* liburua idatzi zuen, *Harribizketa* ezizenarekin. Aurkitzeko zaila zela eta, geroago *Branka* aldizkarian sartu zen. Hor, funtsean, fronte abertzalea sortzeko oinarriak ezartzen dira. Lagun on batek sarri esan didanez, neurri handi batean liburu horrek abertzaletu zuen bera eta beste asko. Franco hil ondoren ere, Fron-



Harribizketa toponimoarekin sinatu zuen *Proyecto de manifiesto vasco* liburua



Bi lagun handi, Monzon eta Txillardegi, Baionako katedralean

te Abertzalea egiteko saioetan hartu zuen parte, Monzonekin batera.

SAIAKERAN MAISU


Lehen bi eleberrien ondoren, urte batzuk egon zen eleberririk idatzi gabe. 1967an, ETA utzi berritan, izan zuen krisialdia gainditzeko edo, *Elsa Scheelen* nobela idatzi zuen 6 hilabeteen, nahiz eta 1969 arte ez zen argitaratu. Euskaltzaindiaren Txomin Agirre saria irabazi zuen eleberri horrekin.

Eleberriak alde batera utzita, euskaraz hain urria zen saiakera lantzen eta berritzen maisu agertu zitzaigun Txillardegirik deserriko urteetan. Hamar saiakera labur zekartzan bere *Huntaz eta hartaz* (1965) liburuak harrera ona izateaz gain, eragin handia izan zuen, bai gaien aldetik (zientzia-gaiak, toponimia, euskara, intelektualen konpromisoa, heriotza...), bai hizkuntza aberatsaren aldetik. Geroago etorriko zen *Hizkuntza eta pentsakera* (1972). Txillardegik, garai hartan Europan eta Ameriketara puntakoak ziren hizkuntzalari estrukturalistek jarraiki, hizkuntzak pentsaeran duen eragina nabarmendu nahi izan zuen. Hots, hizkuntza

herri baten nortasunaren eta arimaren beraren habe nagusia dela. 1985ean argitaratu zen *Gertakarien lekuko* liburua hainbat saiakera eta artikulu bildu zituen, ia denak erbestean egon zen garaikoak. Azkenik, artikulu-bilduma zoragarria den *Euskal Herritik erdal herrietara* (1978) ere Txillardegiren ideiak eta pentsamendua ezagutzeko ezinbesteko gertatzen da. Batez ere 60ko eta 70eko hamarraldietan idatzi zituen hainbat artikulu biltzen dira, eta orduko erreferentzia ideologikoen berri ematen digu.

EUSKARA BATUAREN ERAGILE NAGUSI

1950 inguruan ez zegoen euskara batuaren aldeko girorik, ezta Euskaltzaindian bertan ere. Euskararen Akademian bilerak gaztelaniaz egiten ziren garaiak ziren. Txillardegiren aurretik, 1950eko hamarkadaren hasieran, Krutwig izan zen euskara gaurkotzearen eta batzearen beharra argien ikusi eta gehien nabarmendu zuena. Hizkuntza-eredu gisa lapurtera klasikoa proposatu zuen. Baina Krutwigek 1952an ihes egin behar izan zuen. Ondoko urteetan, Euskaltzaindiak lozorroan jarraitzen zuen, erabakirik hartu gabe.



Saiakeran maisu izan zen Txillardegik

Txillardegi ere, Krutwigekin bat etorri, oso gaztetatik kezkatua zegoen euskarak erakusten zuen dialektalizazioaz, eta ezinbestekotzat jotzen zuen euskara gaitu egin behar zela eta osatu. 1956an, 26 urterekin, «Ez bat eta ez beste» artikulua idatzi zuen *Egan* aldizkarian. Horra artikulua hartako ideia nagusiak: euskaltzaleen arteko zatiketa, euskara ez dela ez garbi ez mordoilo, idazleak ez duela behar ez denean berrikeriak asmatzeko eskubiderik, euskararen erdal kutsua, euskal literatura onaz baliatu beharra, mordoilokeriatik eta garbizalekeriatik ihes egin beharra... Urte berean, Galizian soldadutzan zela, Euskaltzaindia Arantzazun biltzekoa zen, eta txosten bat bidaltzea erabaki zuen, «Karta idigia» izenekoa. Gutun horretan euskaltzaleen artean zegoen anarkia salatzen zuen. Egiteko nagusia hiru aditzekin adierazi zuen: «Euskera gaitu, batu ta osatu». Arantzazuko bilera hartan, Aita Eujenio Agirretxe eta Txillardegi izan ziren euskara batuaren beharra azpimarratu zuten bakarrak. Bi urte geroago, 1958ko abenduan, Bilbon Euskaltzaleen Biltzarra ospatu zen, eta harako ere «Batasunaren bidea» izeneko txostena aurkeztu zuen, batasunaren alde ezer ez zela egiten salatuz. Proposamen bat ere egin zuen: litera


tura-euskalki gisa Oiartzun, Sara eta Elizondoko euskara hartzen zuen eredutzat.

Baina Euskaltzaindiak ez zuen ikusten gazteek sentitzen zuten premia larri hori: «Gazteok sekulako presa genuen, baina hamar urtez itxaron behar izan genuen, Mitxelenaren gidaritzapean Euskara Batuaren oinarriak ikusteko».

Oso zabaldua dago euskara batua Euskaltzaindiak egin zuelako kontua, 1968an, baina euskara batuaren lehenengoetariko urratsak Baionan eman ziren, 1964an, eta Txillardegi izan zen ekimen haren arima eta gidari nagusia. Aurretik, ikusirik Euskaltzaindiak ez zuela euskara batuaren auziari heltzeko asmorik, dimisioa aurkeztu zuen Euskaltzaindian (euskaltzain urgazle zen 1957tik). Dimisioa aurkeztu zuen idazkian esaten zuen Euskaltzaindiak Biltzar Nagusi bat egin behar zuela batasunaren bidean erabakiak hartzeko. Orduko euskaltzainburu Jose Maria Lojendiok ez zion dimisioa onartu. Esan bezala, 1964ko abuztuaren bukaeran, Euskal Idazkaritza elkartearen itzalpean antolatu zen Baionako Biltzarra, eta bertan ezarri ziren gerora «euskara batua» deituko zen hizkuntza-ereduaren oinarriak.



Txillardegi, Euskara Batuaren eragile nagusi



Eta hor Txillardegik zerikusi handia izan zuen, bera baitzen elkarteko euskararen alorreko buru. Berak idatzi zuen txostena, 1958an idatzian oinarriturik. Beraz, esan dezakegu funtsean jada 1958an Txillardegik bere «Batasunaren bidea» txostenean egindako proposamenarekin 10 urte geroagoko bidea seinalatu eta oinarria finkatu zuela.

1964ko Baionako Biltzarra urrats garrantzitsua izan zen euskara estandarerako bidean. Hor proposamen zehatzak egin ziren ortografiari, deklinabideari eta aditzari dagokienez. Eta, oro har, eredu hau ontzat eman zen 1968an Ermuan egindako Biltzarrean eta baita ere gerora erabakigarri eta mugarri gertatu den 1968ko Arantzazuko Euskaltzaindiaren Biltzarrean. Ildo horretan, aipagarri da Mitxelelak berak begi onez ikusten zuela 1964an Txillardegik eta gainerakoek Euskal Idazkaritzan euskara batzeko ahaleginetan egiten ari ziren lana.

Bestalde, Txillardegiren beste kezka handi bat zen Euskaltzaindiaren erabakiei zabalkunde handia ematea, eta esan behar da Arantzazuko Biltzarrean ondoko urteetan lan aipagarria burutu zuela. Eta bat-batean datorkiguna bere *EUSKARA BATUA zertan den* liburua da. Hor Eus-

kaltzaindiak 1968an eta ondoko 5 urteetan erabakitakoak ematen dizkigu, era txukun eta didaktikoan. Bazegoen erabakien egarria, 4 urteren buruan liburuaren 3 argitalpen egin baitziren. Bere asmoa Euskaltzaindiaren erabakiak azaltzea eta argitzea zen. Funtsean, hiru arlo nagusi zituen liburuak: ortografia, deklinabide batua eta aditz batua. Liburuak sekulako arrakasta izan zuen eta, esan bezala, hainbat jendek hortxe ikasi zituen lehenengo aldiz euskara batuaren ezaugarri nagusiak.

Garai hartakoa da *Sustrai bila* (1970) liburua ere (geroago, 1977an, landuago eta osatuago berrargitaratua *Oinarri bila* izenez). Lan horrek bide berriak ireki zituen euskal gramatikan, eta ezinbestekoa gertatu zen euskararen ezaugarrien berri jakin nahi zuenarentzat eta euskara irakasten ari zirenentzat.

Beste lan bat aipatzearren, Euskaltzaindiak argitaratutako *Euskal Aditz Batua* (1979) nabarmendu nahi genuke. Txillardegiren prestaketa hau eskertzekoa da. Ikasle-irakasleak ditu gogoan eta horregatik oso pedagogiko eta praktikoa da (lau koloretan, adibidez eta osagarriz hornitua).



Senatariak: Elkorro, Iruin eta Txillardegui

Berriro hegoaldean (1977-2012)

Politikari dagokionez, Hegoaldera itzuli eta ESB (Euskal Sozialista Bil-tzarrea) alderdian aritu zen, eta talde hartako aurpegi ezagunena izan zen. Baina 1980an bota egin zuten alderditik, euskara eta ETA arrazoi. Herri Batasunaren sorreran ere parte hartu zuen, eta bi legealditan izan zen senatari (bigarren legealdiaren hasieran, 1989ko azaroaren 20an, Madrileko Alcalá hoteleko atentua izan zen, eta han zegoen Txillardegui diputatu eta senatari kideekin). Jada XXI. mendean, Aralar alderdian sartu zen, baina 2007an uztea erabaki zuen, batez ere bi arrazoiengatik: Aralarrek Eusko Jaur-laritzak ETArekin biktimen alde antolatutako ekitaldi batean parte hartu zuelako, eta 2007ko udal hauteskundeetan Aralar Ezker Batuarekin batera aurkeztu zelako. Gero, berriro hurbildu zen Ezker Abertzale ofizialera.



Meaga, 1977-09-02. Goian: Pello Errazkin, Iñaki Txueka, Henrike Knörr, Txillardegui, Ganix Larratxe (egun horretan ezkondua) eta Pontxo Iriarte. Behean: Xabier Galdos eta Jon Alkain



Zelaakoan (Oñati), Kepa Mendia eta Xabier Galdosekin



Bidarrain, 2001eko urriaren 21 ean, Maite Mendiburu eta Kepa Mendiaren zilarrezko ezteien karietara, Iparraldeko eta Hegoaldeko lagunekin



HBko diputatu eta senatariak Madrilen, Josu Muguruza hil zuten egunean, 1989ko azaroaren 20an




Josu Muguruzarekin, 1989an, 6. Korrikan

Bestalde, erbestealdian bezala, Hegoaldera etorri ondoren ere buru-belarri lotu zitzaion idazteari: literatura [*Haizeaz bestaldetik* (1979), *Exkixu* (1988), *Putzu* (1999), *Labartzari agur* (2005), braillez ere badagoena]; hizkuntzalaritza [*Euskal Gramatika* (1978), *Euskal fonologia* (1980), *Euskal azentuaz* (1984)]; sozilinguistika [*Elebidun gizartearen azterketa matematikoa* (1984), etab.]; saiakera [*Euskal kulturaren zapalketa 1956-1981* (1984), *Lingua Navarrorum* (1996), *Horretaz* (2007)]; oroitzapenak [*Euskal Herria helburu* (1994)]; historia [*Antigua 1900* (1992), *Santa Klara, gure uharte ezezaguna* (2004)]; eta ehunka artikulu hainbat aldizkari eta egunkaritan. Gainera, esan behar da 1956an A. Daudet-en «Aita Gaucher'en mixtela» euskaratu zuenetik hainbat itzulpen egin zituela.


EUSKARAREN ALDEKO BORROKA (TEORIAN ETA PRAKTIKAN)

Txillardegik bere *Huntaz eta hartaz* (1965) famatuan honako hau idatzi zuen: «Euskerak egin du Euskal Herria: euskerak ez bestek. Euskerak bizi du Euskal Herria. Euskerak mugatzen du. Eta Euskal Herria piz badadi, euskerak piztuko du». Eta Txillardegiren bizitza osoan euskara izan da bere politika eta goiburu nagusia. Baina ez arlo intelektual teorikoan soilik, praktikoan ere bai.

Alde teorikoari gagozkiola, oso goiz ikusi zuen Euskal Herrian euskaldunak zirela zapalduenak: biziki kezkatzen zuen Txillardegi euskararen gizarte-egoerak.



Bat soziolinguistika aldizkaria zuzendu zuen hainbat urtean



Donostiako Arrano Beltza elkartean, lagunarte ederrean

vegia, Katalunia, Jugoslavia, Irlanda, Aljeria, Armenia, Israel, Belgika, Estonia, Lituania, Txetxenia...

Garai berriagoetara etorrira, nahitaez aipatu behar da *Bat* soziolinguistika-aldizkaria. Aldizkariaren sortzaileetakoa izan zen 1990ean, eta zuzendari 11 urtez (1990-2001). Urte horietan, aldizkarian hainbat artikulu argitaratzeaz gain, zenbaki gehienetako hitzaurreak ere idatzi zituen, sarri irakurketa kritiko interesgarriak eginez. Soziolinguistikan ohikoak diren gaiak tratatu zituen bere lanetan: hizkuntzaren menpekotasuna, elebitasuna, diglosia, hizkuntzaren ezagutza eta erabilera... Erabilerarekin lotuta, funtsezkoak dira bere liburu hauek: *Soziolinguistika matematikoa* (1994, Xabier Isasirekin batera), eta geroago erdaraz: *Hacia una sociolinguística matemática* (2001). Labur esanda, lan hauetan Txillardegik, matematikan oinarriturik, euskararen erabilera azaltzen duen eredu teoriko bat ematen digu. Matematikoki frogatu du euskaldunok leialak garela gure hizkuntzarekiko, alegia, egoera soziolinguistikoak uzten duen heinean, euskara erabiltzeko aukeretan erakusten dugun atxikimendu-tasa handia dela.

Bestalde, Txillardegi ez zen teoriara mugatu. Bere lan teorikoa itzela izan da:

haren idatziak irakurri besterik ez dago. Baina oroz gain intelektual kontsekuentea izan da: teoria praktikarekin, ekin-tzarekin uztartu du. Haren engaiamendua mirestekoa izan da. Hasteko, gaztetan euskara ikasi zuen –eta nola ikasi!– baldintza oso eskasetan, eta gero laster hartu zuen euskaraz funtsezko gauzak idazteko erabakia. Erbestera joan aurretxoan, 1959-1960 urteetan, Euskaltzaindiaren Jagon Sailean aritu zen. Euskaltzaindian bi sail nagusi ziren: Iker Saila, zientzia-atorrekoa, eta Jagon Saila, hizkuntzaren biziari buruzkoa. Abertzale gazteek azken honetan ikusi zuten euskararen alde zerbait egiteko aukera. Horrela, 1959an, Euskaltzaindiaren Laguntzaileak izeneko erakundea indartu nahi izan zuten, Jagon Saileko azpisail gisa. Azpisailaren idazkari Txillardegi izendatu zuten, eta berak prestatu zuen plana eta arautegia. Baina Euskaltzaindian agintzen zutenek trabak ipini zituzten, eta proiektuak porrot egin zuten.

Atzerritik etorrira, jada Hegoaldean, ikusirik alderdien dinamikak euskararen aldeko lanari galga jartzen ziola, ideologia desberdinetako jendea bildu eta Euskal Herrian Euskaraz (EHE) mugimendua sortu zen. Euskal erakunde berriak, herri euskalduna lortzeko asmotan, erreibin-

dikazioa eta borroka hartu zituen ikur nagusitzat. Txillardegik zen taldeko aurpegi ezagunena. Hasierako urteetan, alde batetik teoria landu zuten, eta bestetik garrantzi handia eman zitzaion ekintzari, instituzioetatik eta administrazioetik euskarak jasaten zituen erasoei aurre egiteko. Ekintzarik sonatuenak, hauexek: erdarazko seinaleak estaltzea han eta hemen, Donostian Eusko Kontseilu Nagusian egin zen itxialdia euskararen normalizazioaren aldeko plangintza eskatuz, Nafarroako Diputazioan egindako itxialdia euskararen ofizialtasuna eskatuz, Donostiako RTVEren okupazioa 1981eko otsailan (*tejeradaren bezperan*), Euskal Telebista sortzearen aldeko lana eta ekimena orduan Eusko Jaurlaritzako Kulturako kontseilaria zen Ramon Labaienaren babesarekin, etab. Txillardegik Donostiako ekintza horietan egon zen, jakina. Gerora, eta kontuan izanik EHEren lan nagusia kale-borroka zela (salaketak, pintaketak, okupazioak, etab.), Txillardegik ikusi zuen hobe zela gazte-jendea lan horietarako. Baina behar zenerako han jarraitu zuen beti. Izan ere, bestelako konpromisoek eta osasunak utzi dioten neurrian, Jose Luis beti egon da hortxe euskararen alde egin diren ekintza guztietan.



Irakasle on eta maitagarria izan zen Txillardegik. Hor ageri da eskola ematen, UEUn

IRAKASLE MAITAGARRIA

Bizitzaren zati handi bat irakasle gisa eman du Txillardegik, batez ere 1977an Hegoaldera itzuli zenetik. Baina aurretik ere aritua zen irakasle-lanetan: 1958tik 1960ra bitartean, euskal literaturari buruzko eskolak eman zituen Gipuzkoako Diputazioan; 1964ko udazkenean, Hazparneko Laborantza Eskolan hasi zen matematika-irakasle (eta horra Xarritonen aitortpena: «Nik eskertu nion berehala has zedin gure ikasleen irakasle izaiten, eta orduko ikasleek aitor lezakete gaur oraino zer matematika-irakasle miresgarria eskaini nioten»), baina handik hila-

bete batzuetara prefetak kanpora bidali zuen, eta Belgikara joan zen; 1970-1971 ikasturtean, Bordeleko Unibertsitatean *Euskal Hizkuntza eta Literaturako* irakasle irakurlea izan zen; bestalde, Udako Euskal Unibertsitatean (UEU) Donibane Lohizunen 1973an sortu zenetik hartu zuen parte. Jada Hegoaldean, esana dugunez, eta Patxi Altunaren laguntzarekin, Donostiako EUTGn hasi zen lanean, eta han aritu zen 1977tik 1981era arte, *Euskal Fonologia* eta *Dialektologia* irakatsiz. Bergarako UNEDeko Euskal Kultura Departamentuak eraturako ikastaroetan ere gai bera irakatsi zuen 1978-1979 ikasturtean.

Aldi berean, UZEIn ere lan egin zuen (esaterako, *Hizkuntzalaritza Hiztegian*). 1981-1982 ikasturtea, Pedro Migel Etxenikeri esker lortutako beka batekin, Kalifornian eman zuen Los Angeles-ko UCLAn, doktore-tesia amaitzeko. 1982an, Euskal Herriko Unibertsitateko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean hasi zen lanean, Zorroagan. *Hizkuntzaren Pedagogia* irakasten zuen; eta 1985etik aurrera *Hizkuntzaren Soziologia* ere bai. Esan behar da Pedagogia titulazioan *Hizkuntzaren Pedagogia* ematea kontu berria zela. Eta hor ekarpen bikaina egin zuen Txillardegik. Sailean harrera abegitsua egin zioten Jose Luisi, eta lankideek beti estimatu dute bere jarrera, parte-hartzea eta gertutasuna. 1993-1994 ikasturtean Fakultatea egoitza berrira aldatu zen, Ibaeta Campusera, eta ikasketa-plan berrian Txillardegik batez ere Soziolinguistikari buruzko gaiak irakatsi zituen. Lanpostuari 76 urte bete berri utzi zion, 2005eko irailean, irakasle emeritu zela.


Eta nolako irakaslea zen Txillardegi? Bada, arrastoa uzten duten horietakoa. Beharbada ez zitzaion osoki programari lotuko, edo ez zuen modu antolatuan irakatsiko, edo ez zituen ebaluazio-irizpi-deak ongi finkatuko, edo aurreko batean



Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko lankide eta adiskideekin



Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) omenaldia egin zion Iruñean, 1999an



2000, Baiona: *Txillardeggi lagun giroan* liburuaren aurkezpenean



Jakin aldizkarikoek 1999an omendu zuten Txillardeggi

emandakoa errepikatuko zuen (despistatu samarra izaki), baina, hala eta guztiz ere, oso irakasle ona zen. Haren ikasle izateko zortea izan zutenek maisu maitagarri eta saiatu gisa, pertsona bero eta kartsu moduan gogoratzen dute. Irakasle jantzi, trebe eta bizia zen. Azaltzen zituen kontu asko berak bizi izandakoak baitziren, eta hori oso erakargarri zitzaizen ikasleei.

SARIAK ETA OMENALDIAK

Askotxo gara pentsatzen dugunak bi zor handi ditugula Txillardegirekin: euskaltzain oso ez izendatu izanarena bata, eta Gasteizko Filologia Fakultatean lan egiteko aukera ez ematearena, bestea. Txillardeggi izan da euskaltzain urgazle gisa urte gehien eman dituen (1957-2012), eta inork merezi izan badu euskaltzain oso izendatzea, hori Txillardeggi genuen. Ez dugu dudarik egiten euskaltzain oso iza-

tera, haren ekarpena mesedegarri izango zela euskararentzako eta, zehazki, euskara batuarentzako. Bestalde, EHUUn, Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean egin zuen lana oparoa izan bazen ere, uste dugu hari zegokion tokia Gasteizen zegoela, Euskal Filologia Sailean. Barne-deiaz hizkuntzalari zen, eta Hegoaldera



Donostia, 2008-05-23: Euskaltzaindiak *Leturiaren egunkari ezkutua* eleberriarren ekarpena XX. mendeko euskal narratibaren testuinguruan liburua aurkeztu zuen egunean



2004ko abenduan, Durangon, Argizaiola saria jasotzen

Jone, Maddi eta Jon seme-alabekin, Jose Luis hil eta bi astera Ezker Abertzaleak Donostian egindako omenaldian



2011ko otsailean, berak sorturiko Euskal Herrian Euskaraz taldeak omendu zuen Donostian

itzuli ostean hizkuntzalari oso izateko asmoa eta esperantza bazuen ere, Gasteizko atea itxi zitzaizkion, eta beste bide bat hartu zuen. Bidezko bi «sari» horiek jaso balitu, makina bat une txar eta sufrimendu aurreztuko genizkion.

Lehenago esana dugu *Elsa Scheelen*-ekin Txomin Agirre saria irabazi zuela 1968an. Horra beste sari aipagarri batzuk: 1980an, Zilarrezko Lauburua eman zioten *Euskal Gramatika* liburuagatik; 2004an Gerediaga elkarteak Argizaiola saria eman zion Durangoko Azokan. Bestalde, hainbat omenaldi jaso zituen bizirik zela, eta, berriki, hil ondoren ere bai. Besteren artean, hauek: UEUk omenaldi bat egin zion eta ohorezko kide izendatu zuen 1999ko uztailan; *Jakin* aldizkariak ale berezi bat eskaini zion 1999an; UEUk *Txillardegi, lagun giroan* liburua argitaratu zuen 2000. urtean; 2002an, Mendebalde Kultura Alkartek omendu zuen, «Administrazioa eta euskalkiak» izeneko jardunaldien barruan;

2002an, Soziolinguistikako SEI elkarteak ohorezko lehendakari izendatu zuen; 2004ko urrian, Koldo Mitxelena Kulturuneak Txillardegiren omenezko jardunaldiak egin zituen; 2005ean, Euskaltzaindiak *Nerekin yaiio nun: Txillardegiri omenaldia* liburua aurkeztu zuen; 2009an, Soziolinguistika Klusterrak *Bat* aldizkariaren 71. zenbakia eskaini zion; 2011ko otsailean, Euskal Herrian Euskaraz elkarteak omenaldia egin zion Donostian.



Gotzon Garate, Patxi Altuna eta besterekin, EIREK (Unibertsitateko Euskal Irakasleen Elkartea) Durangoko Arte eta Historia Museoa 2002an egin zien omenaldian

Hil ondoren ere gogoratua eta omendua izan da: besteak beste, 2012ko urtarrilaren 29an, Ezker Abertzaleak omenaldia egin zion Donostiako Victoria Eugenia; 2012ko otsailaren 19an, euskal idazleek Txillardegi gogoan izan zuten Donostiako Victoria Eugenia egindako ekitaldian; 2012ko azaroaren 9an, Txillardegi irakaslearen omenezko ekitaldi akademiko bat egin zen Donostian, Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean; 2013ko hasieran Donostiak Hiritar Merezimendu domina eman zion; urte bereko maiatzean Txillardegiren literatura-lana ezagutzeko ibilbidea egin zuten Gipuzkoako hiri-buruan; 2014ko ekainaren 23tik 25era, EHU eta Gipuzkoako Diputazioak antolatuta, «Txillardegi eta euskal idazleak» udako ikastaroa egin zen; eta 2015eko urtarrilean, Jakin Fundazioak eta Gipuzkoako Diputazioak Jose Luisen idazlanak digitalizatzea hitzartu zuten. Harrezkerro, hainbat jarduera eta ekitaldi egin dira Txillardegiren omenez, gehienak Udal Liburutegia herri ekimenak antolatuta.

HONDAR-HITZAK

Azkenaldira osasunak huts egin zion; azken urtea bereziki txarra izan zuen, eta bi-

zitza publikotik ia erabat desagertu zen. 2012ko urtarrilaren 14an hil zen, 82 urte zituela.

Txillardegi gizon polifazetikoa izan zen, eta orain arte esandakoekin ez ditugu haren alderdi guztiak jorratu. Txillardegi bakarra, pieza batekoa, baina aldi berean Txillardegi asko. Eman ditzagun, azaletik bada ere, alderdi horien zertzelada batzuk.

Aipatu dugu euskara batuaren alde egin zuen lana. Baina horrek ez zekarren berez euskalkiak baztertzea edo mespretxatzea. Dialektologiaz asko zekien, eta lagunartean gipuzkeraz egiten zuen batuan baino gehiago.

Pianoa jotzearen zaletasuna amagandik zetorkion. Aitak debekatu zion arte, bost urte ibili zen piano ikasten. Pianoa beti izan zuen lagun bizi izandako etxe guztietan, eta nahiko txukun jotzera iritsi zen (besteren artean, Chopin, Debussy eta Ravel zituen gogoko). Villabonako Amasa auzoko baserri batean zenbait urte



2007an, urrezko ezteietan



Amagandik zetorkion pianoa jotzeko zaletasuna



Jose Luis txakurrekin Amasan, Bidarte baserriaren atzealdean

bizi ondoren, Donostiako Alde Zaharrera itzuli zirenean, utzi zion pianoa jotzeari, inguruko bizilagunei ez galarazteagatik.

Astronomiari ere sekulako maitasuna zion, bere idatzi askotan suma daitekeenez. Urtetan egon zen harpidetuta hainbat aldizkaritara, eta hasieratik bukaeraraino irakurtzen zituen.

Humanista zen Txillardegi, baina aldi berean animaliazalea, abereak maite zituen, bereziki txakurrak. Azken urteetan Donostian ez, baina bestela beti izan du txakurren bat etxean. Bestalde, zezenketen aurka behin baino gehiagotan idatzi zuen, eta baita kale-agerraldietan ere parte hartu.

Bertsozalea ere bazen, baina gogokoago zituen bertsolari zaharrak (Xenpelar, Txirrita, Mattin, Iturzaeta...), haien hizkera zela-eta.

Garaiko erlijio-giroa (eskolan, burkideen artean...) ezagutu bazuen ere, inoiz ere ez zen izan militante katolikoa. Agnostikotzat zuen bere burua.

Xehetasun bat haren izaeraz. Txillardegi bere ideietan tinko agertzen zen, gogorra zen, gogorregia agian eta ez oso asertiboa zenbaitetan. Garaiko politikoek bere onetik ateratzen zuten, umorea ere galtzeraino. Sartrearen bidetik, erradikala. Baina gertutik ezagutzeko zortea izan genuenok ezin dugu ahaztu haren izaera apala, haren gizatasuna, besteei entzuteko gaitasuna, haren samurtasuna eta hurbiltasuna.

Eta bukatzeko, Txillardegi zer eta zein izan den ongi islatzen duelakoan, Joxe Azurmendiri 2012ko azaroan esan zituen hitz batzuk lapurtuko dizkiot: «Ni euskal mundura iritsi nintzenerako planteamendu garrantzitsuenetakoak eginda zeuden. Txillardegi da, nire ustez, bide-urratzaile nagusia, eta intuizio erabakigarri guztiak eduki dituena. Harekin hasten da mar-txa bat, gerraosteko euskal munduaren belaunaldia».

Egileak eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko jasotako laguntzagaririk, eskerrak eman nahi dizkiete:

- Jone Forcadari
- *Berria* egunkariari
- Feli Etxeberriari
- Kepa Mendiari, Ganix Larratxeri eta Xabier Galdosi
- Pako Suduperi

Zuzendaritza: Jerardo Elortza
Argitaraldia: 1.a, 2020ko urtarrilean
Ale-kopurua: 2.300 ale
© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazkilaria: Edorta Sanz
Fotokonposizioa: Centro Gráfico Ganboa, S.A.
Inprimaketa: Centro Gráfico Ganboa, S.A.
ISBN: 978-84-457-3526-8 (Lan osoarena)
978-84-457-3529-9
L.G.: LG G 00224-2020



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA